

GASTEIZ EUSKALDUNTZEKO URRATSAK EKITALDI-EGITASMOA

I. Euskalduntze-Alfabetatzea

Atal honetan helduen euskalduntzeari lotuko gatzazkio: alegia, eskolarotik kanpora dauden hiritarrei. Helduen Euskalduntze-Alfabetatzea arautzen duen erakundeari jarraikiz, 16 urteetan jarriko dugu zedarria.

Gasteizko hiriak 16 urtez gorako 145.476 biztanle ditu (1981.eko Errolda). Udalak 1.300tik gora langile ditu. Gogoan hartzen badugu heldu bat euskalduntzeko (EGA mailaraino) 1.200-1.500 ordu behar direla, batetik, eta udalerrian zein udal-etxean euskara ondo edo zerbait dakitenak %10 inguru direla, bestetik, argi eta garbi agertzen da hautazko planteamenduak egitearen premia. Ondoko lerroetan zenbait lehentasun zirriborratzeari ekingo diot.

Hiru talde egingo ditut, hurrenez-hurren kontutan hartu behar direnak: Udalaren Haur-Eskolak, udal-langileak eta hiritarrak. Laugarren talde bat ere aipatzen ausartuko naiz, oraingoz «behi lodien aroa», Foru-Aldunditik Udalera etorri ohi ziren dirutzei dagokienez, behintzat, amaitutzat eman beharko dugu garai baterako- aurrera ateratzeko ahalbide eskaxak ikusten badituz ere: zenbait maisu-maistraren euskalduntzearen azkartzeaz ari naiz.

1.1 Udalaren Haur-Eskolak

Hezkuntz katearen lehen begia. Gasteiz inoiz euskaldundu-ko bada, irakaskuntzan jarri beharra dugu euskalgintzaren aitzindaritzan.

1984. urtearen irailetik abian da euskalduntze-plangintza bat, bi alditan burutu (eta burutzen ari) dena: «atalase» edo A maila lortu artekoa eta lortu ondokoa. Lehen 400-500 ordu horiek 2 ordutako eskolasaioretan ematen dira! eskuratu ondoan, berriz, lana utzi eta, Udalak hezitzaileei eskaintzen dizkien 8 ordutako eskolen bitartez, urtebeteko epea dute EGA agiria lortzeko. Epe honetan eskuratzen ez dutenak lanera itzuli eta bi urtetan bere kaxa ihardun beharko dute delako agiria erdiesteko.

Proposamen honi 53 hezitzailetarik 46k (%86,7k) eman zioten baietza: Hiru taldetan banatu eta beraien euskalduntzeari ekin zioten Udalak kontraturiko irakasle-taldeak.

Une honetan hirugarren txandakoekin ari gara. Orain arte EGA azterketara aurkeztu diren 28 hezitzailetarik (lehen bi txandetakoak), 18k eskuratu dute.

Haur-Eskoletan umeekin erabiltzen den hizkuntzaz denaz bezanbatean, egoera ondokoa da:

Haur-Eskola	Sehasiak	Arrastakariak	2 urtetakoak			3 urtetakoak	
			a	b	c	a	b
Abetxuko							
Arana			+++++	+++++		+++++	+++++
Aranbizkarra		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++
Haurtzaro	+++++	+++++	+++++	+++++			+++++
Izarra						+++++	+++++
Lakua			+++++	+++++			
Olarizu					+++++	+++++	+++++
Pilar		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++
Sansonamendi		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++
Santa Lucia		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++
Txagorritxu		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++
Umeeen Etxea		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++
Zaramaga		+++++	+++++	+++++	+++++	+++++	+++++

Oharrak: 1, sehaskak eta arrakastakariak (*gateo*) izeneko sailetan, gehienez gela bakarra dago; bi urtetakoetan, aldiz, 3, eta hiru urtetakoetan bi.

2, Abetxuko Haur-Eskola 1984.eko irailaz geroztik tranferitu dute eta bertako irakasle guztiak erdaldunak dira.

3, (-) zeinuak erdara erabiltzen dela adierazten du; (+)-k, ostera, euskara.

Esan dudanez, hirugarren txandako hezitzaileekin ari gara orain. Hauek lortzen dituzten ondorioak ehuneko ehunean onak izanda ere, 16 hezitzaile (Abetxukoko 7 eta 1984.eko irailan euskalduntze-plangintzari baiezkorik eman ez zioten 9) geratuko dira euskaldundu gabe.

Mila baino gehiago dira Udalaren Haur-Eskoletara joaten diren haurrak. Zenbat eta lehenago hasi euskara irakaskuntzan sartzen hainbat eta ezabatuago geldituko da haurren ama-hizkuntzaren kontzeptua. Ia erabat erdalduna den Gasteiz batean demokratikoena eta merkeena da gutxienez hizkuntza bietan hezitzea. 1987.eko irailean amaituko ditugu 1984.eko 46 hezitzaile horiekikoak. Haur-Eskola guztietan hezkuntza elebiduna izateko zenbait lantoki-aldaketa eragin beharko luke Udalak hezitzaileen artean. Euskara hutsezko eredu bultzatu behar dela erabakiko balu, berriz, hasierako plangintzatik kanpo geratu ziran 16 hezitzaile horien euskalduntzeari ekin beharko genioke. Horrela izatekotan, honako proposamena egin genezaieke hezitzaileei:

- 1987-89 irakasturteetarako bi ordutako saioak, bost egun astean, hamar hilabete urtean, lanordu osagarrien barruan. Helburua oinarritzko euskara bereganatzea.

- 1989-1990 ikasturtetarako, urte osoan liberaturik egotea EGA lortzeko.

OHARRAK: 1. Zero-zerotik hasi beharko dute hezitzaile horiek.

2. Aurrekontua 60 miloi ingurukoa izango da.

Urtebetea liberatuta eman dutenentzat EGA lortu zein ez lortu bidezko ikusten da jarraipen moduko zerbait ematea:

- EGA eskuratu dutenentzat euskara hobetzeko ikastaroak. Bi helburu izango lituzkete: hizkuntzan sakontzea, batetik; eta euren lanean behar duten euskara teknikoa lantzea, bestetik. Hauekin hamabostaldian bi orduko saio bat izatea aski delakoan nago. Honez gain, etxerako lan ugari hamabostaldi batetik bestera burutzekoa.

- EGAtik hurbil gelditu direnentzat, delako agiria ateratzera zuzenduta dagoen ikastaroa antolatzea, hiru egun astean, bi ordu egunean eta lanordu osagarrien barnean.

1.2 Funtzionarioen euskalduntzea

Udalak 1.335 langile ditu. Hain kopuru handia izanda, ezinbestekoa da lehentasunak jartzea (gogoan izan euskaraz ezer ez dakien langilea EGAREN pareko mailaraino iristea, 2,5 milioitik gora ateratzen zaiola Udalari). Beraz, arlo honetan gutxienezko planteamenduak egin behar dira. Legeak dioena betetzea besterik ez; alegia,ko, euskara hutsez egin nahi duten hiritarra Udalaren edozein sailetara joanda ere euskaldun bana aurkitu ahal izatea.

1.335 langile horiek honela bana daitezke: batetik, hiritarrek harreman administratiboak dituztenak; eta, bestetik, harremanik ez dutenak. Lehengoak 305 dira; bigarrenak 1.030.

Hortaz, askoz lan-esparru mugatuagoa izango da, hasieran, bederen, Sailez-sail emanez gero:

	kopurua	euskaldunak	ikasten ari direnak
1. EKONOMI ARLOA			
- Zerga-bilketa	8	-	-
- Gordailuzaintza	4	-	-
- Kontribuzioa	13	-	-
- Kontuhartzaitza	5	-	1
- Beterazlegoa	6	-	-
- Hazienda	1	-	-
- Ikuskatzaitza	4	-	-

GIZARTEA

2. ADMINISTRAZIO-ARLOA

- Errola	4	-	-
- Soldaduska	3	-	-
- Idazkaritza	4	-	2
- Argibideak	9	-	-
- Pertsonala	10	-	1
- Alkategoa	1	-	-

3. NATUR-HIRI PLANGINTZA ARLOAK

- Hirigintza	10	-	1
- Ondarea	5	-	1
- Bidegintza	14	-	-
- Arkitektura	15	-	-
- Ingurugiroa	14	-	1
- Nekazal eremua	5	-	-
- Hiri Zaharraren Saila	12	-	1

4. KULTUR SAILA

- Liburutegia	5	-	-
- Olagibel aretoa	1	-	1
- Kultura	5	1	1
- Hezkuntza	9	2	3
- Gazteria	15	1	2
- Euskara	4	4	-

5. BESTELAKO ARLOAK

- Udaltzaingoa	5	-	-
- Telefono-bulegoa	1	-	1
- Ordenagailua	2	-	-
- Medikua eta O.L.T.	2	-	-
- Gizarte-Ongizatea	17	1	4
- Prentsa	3	1	-

6. KANPOKO UDAL-ZERBITZUAK

- AMVISA	3	-	-
- VIMUVISA	2	-	-
- Kirol erakundeak	22	-	-
- Egoitza	12	1	-
- Haur-Eskolak	63	*	*
- ASORES	2	-	-

(* Plangintza berezia dute.

Ikasten ari diren 26 funtzionari horiek Udalak eraturako irakasletaldearekin egiten dute. Bi ordu t'erdiko eskolak dira egunero, ia hamaika hilabete urtean (laneguna eskola-eguna baita). Urtebetean hilabeteko barmetegialdia egiten dute. Den-dena lanorduen barruan sartzen da.

1987an 26 horien euskalduntzea azkartu egingo da, 10 bat langile 6 hilabetetarako liberatuko direlarik egunean 8 ordutako ikastaroetan ikas dezaten. Aukera ematerakoan lehentasuna izango dute goi-mailakoek; halaber, sailez-saileko banakuntzari ere begiratuko zaio.

Aurrekoaz gain, eta gerora begira argi dago jokabidea aldatu bearra dagoela. Orain arte aski zen haien zerbitziburuen baimena izatea nahi adina funtzionari euskara ikasi ahal izateko. Aurrerantzean, ostera, lehentasunezko erizpide batzu finkatu beharko ditu Euskara-Batzordeak, urtero hamar bat liberatu eta euskalduntzeko. (Ez ahaztu, gero, hamar liberatzeak 25 bat miloi direla urtean). Erizpideak aipatu ditugularik, bi hauek izan beharko dute nagusi: sailaren zein arloaren hizkuntz egoera eta zenbat hiritarrek jotzen duten delako sail nahiz zerbitzura.

SIADeco ikerketa-taldeak egindakoaren arauera. badirudi jenderik gehien hartzen dituzten sailak ondokoak direla:

- Diru bilketa: %21,10
- Errolda: %16,14
- Gizarte Ongizatea: %13,93
- Olagibel Aretoa: %9,38
- Argibide Saila: %6,55
- Kontribuzioa: %4,96
- Hiri Zaharraren Saila: %3,38
- Bidegintza: %2,96
- Kultura: %2,88
- Hezkuntza: %2,63
- Ingurugiroa: %2
- Pertsonala: %1,71

Sail hauetakoeekin ere hasi beharko genuke, beraz. Lehen urratsa oinarri sendo bat eskura dezatela lortzea; bigarrena, libe-

ratzea eta EGArantz bideratzea.

1.3 Euskara-Eskolak auzoetan

Bi urratsetan planteatzen da: lehena oraintxe emango litzateke, lau auzotan irakasle bana jarrita. Egunero bi ordutako ikastaroak emango lirateke, bost egun astean eta 10 hilabete urtean. Lehentasuna emango genieke auzoan auzoko B eta D eredueta-ko eskoletako haurren gurasoei, ikastetxeetan umeez ikasten duten euskara indartua izan dadin etxean.

Hasteko lau auzo jo dira begiz Alde Zaharra, Sansomendi, Aranbizkarra eta Lakua. 12-15 laguneko taldeak direnez eta auzo bakoitzean bi txanda, guztira 120 ikasle ateratzen zaizkigu.

Erantzun onik badute (eta izango dutela espero izatekoa da) hurrengo urratsak udal-euskaltegi bihurtzea izan beharko luke, HABEren sarebarruan sartuta. Horretarako gutxienez lau irakasleko unitateak osatuz joan beharko litzateke eta dena HABEren Legea garatzen duten dekretu, ebazpen zein aginduetara egokitu.

Egitura tinkoagoko euskaltegi horiek sortzerakoan, besteak beste, bi gauza hartu behar dira kontutan: zeintzu diren biztanle gehien duten auzoak, batetik; eta bestetik, badiren euskaltegiak non dauden kokatuta.

Biztanle-eta ondo hitz egiten dakitenen kopurei dagokienez, lehen urratsak emateko begiz jo ditugun lau auzoen ezau-garriak hauek dira:

Auzoak	Biztan.	%	Ongi	Zerbait (dakite euskaraz)
1. Alde Zaharra	11,707	%5,8	%3,1	%7,1
2. Aranbizkarra	10,150	%5,0	%2,3	%7,8
3. Arriaga-Lakua	5,053	%2,5	%2,5	%7,7
4. Sansomendi	8,719	%4,3	%0,9	%4,7
Eta gerora begira azter litezkeen alderdiak:				
- Coronación	18,905	%9,3	%3,9	%9
- El Pilar	14,397	%7,1	%2,3	%8,6

- Matadero	10,277	%5,0	%2,6	%7,8
- Santa Isabel	10,225	%5,0	%2,9	%8
<hr/>				
- Adurza	6,429	%3,2	%2,2	%8,1
- San Cristobal	9,760	%4,8	%2,5	%9,2

II. Itzulpen-Arloa

Savory-k 12 joera eskaintzen digu itzulgai baten aurrean:

1. jatorrizko hizkuntzako hitzak itzuli behar dira.
2. jatorrizko ideiak itzuli behar dira.
3. jatorrizko obraren kutsua izan behar da.
4. itzulpen kutsua izan behar da.
5. jatorrizko estiloa isladatu behar da.
6. itzultzailearen estiloa izan behar da.
7. jatorrizkoaren garaiko kutsua izan behar da.
8. itzultzailearen garaiko kutsua izan behar da.
9. jatorrizkoari zerbait erants nahiz ken diezaioke.
10. ezin dakiok ezer ken, ez erants jatorrizkoari.
11. poesia prosaz itzuli behar da.
12. poesia bertsoz itzuli behar da.

Badirudi hamabi puntu horiek bitara bil litezkeela: baliokidetza formalaren ildotik, bata; eta dinamikoarenetik, bestea.

Baliokidetza formala: garrantzia jatorrizko testuari ematen zaio. Jatorrizko testuaren elementu guztiak iraunerazten saiatzen da; izenari izenez, aditzari aditzez, etabar. Berdin egiten ahalegintzen dira hiztegiarekin, etenaldiekin, etabarrekin; bertsoa ere bertsoz.

Hau izango da autorearengan eta beraren garaian murgiltzeko itzulpen egokiena. Beharrezkoa du, ordea, sarrera on bat eta ohar argitzaile ugari. Jatorrizko testuaren historikotasuna salbatzen du, baina zurrunduz edo izoztuz.

Baliokidetza dinamikoa. Itzulgaia irakurtzen duen hartzailea jatorrizko testuaren irakurlea zegoen baldintza berberetan jartzten saiatzen da itzulpen-eredu hau. Gramatika magultasun handiz erabiliko da izenaren ordeztuena zein aditza edo izenordea sartuta. Jatorrizko testuaren historikotasuna ezabatzea jotzen du.

Itzulgaien barruan bi mota bereiz dezakegu: administrati-
boak eta literatur testuak. Behin hizkuntza normalduz gero, ba-
dirudi administraziozko testuen itzulpenak ez duela buruhauste-
rik sortu behar, eta etorkizun hurbil batean makinaren bitartez
egin ahal izango direla. Literaturazko itzulgaiekin, ordea, agerian
dago itzultzaile-sortzailearen beharra.

Halarik ere, eta gure lan-esparrua Administrazioa denez,
alor honi lotuko natzaio.

Itzulgai administratiboen artean bi eratakoak ditugu, nola-
ko hartzailarentzat den kontutan hartuz gero: lehenengo eta
behin, hartzaila arruntari mezuak emateko erabiltzen diren tes-
tuak (bandoak, iragarkiak, etabar.); eta, bigarrenik, hartzaila be-
rezituari eta adituari prozesuen berri zehatz-mehatza erabiltzen
ditugunak. Hartzaila ez-espezialitua bada, erdarara jotzeko izan-
go duen tentazioa saihesteko, kontuz ibili beharko da jatorrizko
formaren mirabe den itzulpena sor ez dezagun. Batera erabil-
tzen jakin beharko da baliokidetzak dinamikoak eta formalak
(hizkera administratiboa finkatu beharra dago) ematen dituzten
baliabideak (baliokidetzak, egokipena, kalkoa, mailegua, etabar.).

Itzulgaia hartzaila espezializatuarentzat bada, ordea, askoz
jokabide mekanikoagoa izango da (edo izan beharko litzateke,
hizkuntza normalizatuta balego).

III. Euskararen sustapena

Euskal giroa Gasteizen sustatu nahi dugu: beraz, lehen
urratsa hiritarrek zer euskara-maila duten jakitea izango da, abia-
burua zein den, alegia.

Esku artean darabiltzadan datuak 1981.eko Erroldakoak
dira eta honako hizkuntz tipologia ematen du 4 urtez gorako
hiritarrei buruz:

1. Alfabetatuak	3,618	%2,0
2. Erdi-Alfabetatuak	2,096	%1,1
3. Alfabetatugabeak	493	%0,3

4. Ia euskaldun alfabetatuak	12,774	%7
5. Ia euskaldun alfabetatugabeak	3,832	%2,1
6. Ia euskaldun pasiboak	3,815	%2,1
7. Erdaldunak	156,741	%85,4

OROTARA 183,369 %100

Hortaz, euskaldunak -alfabetatuak zein alfabetatugabeak- 6.000 inguru dira. Gainera 4, 5 eta 6. taldeetan euskaldun osoak izan ez baina izango direnak edo izan direnak ditugu, zenbait neurri egoki hartuta 7. taldekoak baino askoz errazago euskaldunduko ditugunak.

Adinaren arauera bi azpitaldetan banatuko ditut: helduena eta haur-gazteena, bien arteko muga 16 urte inguruan kokatuta.

Adinekoak

Lehenago aipatu adin-mugari kasu egiten badiogu, 4.332 euskaldun ditugu 1. 2. eta 3. taldeetan, eta 11.529 sasi-euskaldun 4. 5. eta 6garrenean.

Datu hauen osagarriak Helduei euskara irakasten dieten erakunde-elkarteetan zenbat ari diren litzateke. 1986-1987 ikas-turteko datuak paratuko ditut:

	ikasle-kopurua %		eskolordu-kopurua %	
HABE	422	11,39	162.653	16,66
UDABERRIA	470	12,69	118.981	12,18
HEGOALDE	178	4,80	43.509	4,45
AEK	2.632	71,09	651.156	66,69
	3.702	100	976.289	100

(Oharra: HABErena euskaltegi publikoa da; gainerakoak, ordea, pribatuak; bai UDABERRIA bai HEGOALDE HABEk homologatuak daude, AEKrena, aldiz, ez).

Hartara, euskara sustatzeko ekitaldiak antolatzerakoan, ezin izango ditugu goiko datuak ahaztu.

Kultur ekitaldien egitaraua

Ezer baino lehen argi eta garbi utzi behar da oso garrantzitsua dela helduei begira antolatzen diren ekitaldiak ikasturte akademikoaren barruan eta astelehenetik ostegunera bitartean egitea. Kontua da Gasteizen lanean edo ikasten jende pila batek ematen duela astea eta ostiralean alde egiten dutela. Eskarmentu handia dugu honetan.

Izandako esperientziari jarraituz, oinarri-oinarrikotzat jotzen dut Barzorde Aholku-Emale eta Laguntzailearekin harremanetan segitzea, ideia gehiago gureganatzeaz gain, haiek beraien saiatuko direlako euren ikasleak eta lankideak ekitaldietara eramaten. Orain arte Udaletxera bildu ditugunak hauek izan dira: AEK, HABE, Hegoalde euskaltegia, Udaberria euskaltegia, Arkauteko Ertzaingoaren Euskara-Saila, IRALE, Magisteritza-Eskolako Euskara-Saila, Bertsolari-Eskola, eta Euskal Herrian Euskaraz.

1. Kantaldiak

Duten abantaila da alderdi musikala dela eta, euskaraz ez dakien jendea erakartzea eta zenbaitengan euskara ikasteko go-goia piztea.

Urtean zehar lau bat egin liteke, hiruhilabetean behin. Dirutan 1.250.000 izan daiteke (antzokiak eta propaganda barne).

2. Hitzaldiak eta mahai-inguruak

Laupabost urtean.

Gai monografiko baten lanketa.

Aurrekontua 300.000 izan daiteke.

3. Zine emanaldiak

Villa-Suso jauregiko aretoan. Eman daitezkeenak «Hama-seigarrenean aidanez», «Ehun metro» eta «Zergatik panpox».
(Gainerakoak emanak daude lehenagotik).

Aurrekontua 60.000 pzta.

4. Antzerkia

Bost urte osoan. Aurrekontua 1.200.000 pzta. Besteak beste, «Jo ezazu berriz ere, Sam» eta Maskarada Taldeak egin duen azkenengoa.

5. Bertso-saioak

Bi urtean: Bat Gabonen inguruan finaleko bertsolari guztiekin; bestea Andra Mari Zuriaren jaietan.

6. Literatur sariketa

Sariak Andra Mari Zuriaren jaietan banatuko lirateke, erabat erdalduna den giroa zertxobait euskalduntzeko asmotan. Gabonetarako egin beharko litzateke deia. Jorra litezkeen alorrak: elaberrigintza (800.000 pzta); poesia (400.000 pzta.); haurrentzako ipuinak (250.000 pzta.).

Haurrak

OHOra arte ditugun datuak eredu-eredu eta eskolamoten arauera ondokoa duzue:

Eskola-mota	ikasleak	A	B	D	X
Haur-Eskolak	1,793	%4,2	%2,3	%0	%93,5
Ikastolak	4,405	%0	%76,9	%23,1	%0
Pribatuak	21,241	%87,5	%0	%0	%12,5
Publikoak	22,986	%86,6	%2,4	%0	%11,1

Oharrak: 1, Datuok iazko ikasturtekoak dira.

2, «X» eredia da euskararik gabekoa.

Haurren arlo honetan ere ezinbestekoa ikusten dugu Udalak Eskola-giroa euskalduntzeko lantaldearekin izan dituen harremanak mantentzea. Bertan, besteak beste, hauek ditugu: Eskola Publikoko euskara-irakasleen ordezkariak, ikastola publikoetako ordezkariak, Olabide ikastolaren ordezkariak, Arabako Ikastolen elkarteak ordezkariak eta Gizarte-Ekinbideak sorturiko ikastetxeen ordezkariak.

1. Eredu guztietako haurrei zuzendutako ekitaldiak:

- UMANDI eskolarteko lehiaketarekin segitzea (iazkoan eskoletako - ikastola, pribatu zein publikoetakoak- ia 10.000 haurrek parte hartu bait zuten). Aurrekontua 5.000.000 pzta. (Sariak gehi 10.000 bat liburu koloretan ateratzea).

- «Utzi hegaz egiten» izeneko kanpainari ekitea, bai haurrak bai gurasoak batera euskararen alde jartzea helburu duena. Hau 'egiteko data egokiak aurre-matrikulazioaren inguruan (otsaila-martxoa aldean) B eta D ereduaren gorakadan eragina izan dezan. (4.000.000 inguru).

- «Euskaraz bizi» izeneko hormirudi-lehiaketa eta erakusketa (70.000 pzta).

- Udalak dituen erakunde zein eraikuntzak bisitatzeko aukera ematea (suhiltzaileek parkea, ludotekak, udal-polikiroldegiak, etabar.). Leku guztia hauetan monitore euskaldun bat izango da. Honez gain fitxa didaktiko bat bidaliko zaie joan aurretik eta joan ondotik hiztegi berriaren eta zenbait ekitaldiren inguruan lan egin dezaten. (Aurrekontua 350.000 pzta).

Auzoz-auzoko ekitaldiak, Erdialdea, Arana-Aranbizkarra, Zaramaga, Txagorritxu, Adurtza eta El Pilar izan daitezke. Ekitaldiaren maiztasuna antzerki edo giñola auzo bakoitzeko ikastetxe batean hiru hilabeteetan behin; pelikula bat ere horrela eman liteke eta azkenik, euskara kalera ateratzeko jaialditxoren bat (ikastaroa hastean edo amaitzean). Guzti honek bi miloi inguru suposa dezake.

2. B eta D ereduak haurrentzat

- Udalekuak eskolaurreko eta OHOk hasiera zikloko haurrentzat. Hauek bait dira beste erakunde publikoek hartzen ez dituzten adinak. Baina talde osatzen badira 4 bat miloi ateratzen dira.

- Udalak Gasteiz inguruan dituen etxeez baliaturik (Ota-zu...) astebeteko egondaldiak eskaini eskola zein ikastolei. Udalak

etxeen egokitze-lanak zein mantenimendua hartuko litzuke bete gain eta monitore bat haurrentzat iharduteko; ikastegiari, berriz, beharrezko diren irakasleak (bat edo bi) jartzea; gurasoei, azkenik, janarien salneurria. Ikasgela osoak eramanda (25-30 haur) 900 bat haur joan litezke, duten euskara-maila nabarmenki indartuz. Udalarentzat gutxienezko kostua 4.500.000 pezeta-takoa izango litzateke.

Patxi Mtz. de Marigorta Guzman